

**DONOSTIAKO TRANBIA KONPAINIA, SAUn MEKANIKARI-ELEKTRIKARI BALIOANIZTUNAREN LAN POLTSA SORTZEKO HAUTATZE PROZESUAREN DEIALDIA.**

- **DEIALDIAN ONARTUTAKO ETA BAZTERTUTAKO HAUTAGAIEN BEHIN-BETIKO ZERRENDA**
- **1.1 FASEA - PROBA PROFESIONAL TEORIKOA ETA 2.FASEA – PROBA PSIKOTEKNIKOAK ETA GAITASUNEKOAK EGITEKO DEIALDIA**

Goian aipaturiko Deialdian onartutako eta baztertutako hautagaien behin-behineko zerrendari buruzko alegazioak aurkezteko epea amaitu ondoren eta bat jaso eta aztertu ondoren, Hautatze Batzordeak,

**ERABAKI DU**

**Lehenengo.-** Hautatze prozesuan onartutako eta baztertutako hautagaien behin-betiko zerrenda onartzea eta argitaratzea (1.ERANSKINA).

Interesatuarekin kontaktatuko da haren eskaerari erantzuna emanaz, parte hartzeko eskaera orrian adierazitako posta elektronikoaren bidez.

**Bigarren.-** Deialdiaren oinarrietan xedaturikoaren arabera, **hautaketa prozesuan onartutako hautagaiei dei egiten zaie 1.1 Fasea – Proba Profesional Teorikoa eta 2. Fasea - Proba Psikoteknikoak eta Gaitasunekoak egitera joan daitezten 2023ko azaroaren 24an, 15:30etan, OTEIC Taldearen bulegoetan (Zuatzu Enpresa Parkea, Igeldo Iraikina-1.solairua, Donostia).**

**1.1 Fasea - Proba Profesional Teorikoa:** Proba teorikoa izango da, eta haren bidez mekanikako (motorra, aldaketa automatikoak, multzoak, esekidura eta pneumatika) eta automobilgintzako elektrizitateko (eskema elektrikoaren interpretazioa eta aplikazioa) ezagutzak ebaluatuko dira. Horretarako, hainbat ariketa mota planteatu ahal izango dira, test motakoak, problemak eta garatzeko galderak.

Gutxienez 12 puntu lortu beharko dira, proban gehienez lortu ahal izango diren 20 puntuak oinarri hartuta.

**2. Fasea – Proba Psikoteknikoak eta Gaitasun Probak:** Hainbat proba psikotekniko eta gaitasun proba egingo dira, hautagaiek lanposturako behar diren gaitasunak eta trebetasunak dituzten ala ez ikusteko.

Fase honetan gutxienez 9 puntu lortu beharko dira, proban gehienez lortu ahal izango diren 15 puntuak oinarri hartuta.

Hautagaiei dei bakarra egiten zaie eta jatorrizko NAN, pasaportea edo gidabaimena erakutsi beharko dute. Dokumentu horietako bat ez badute aurkezten, ezin izango dituzte probak egin.

Gogorarazten da Hautaketa Batzordeak egiaztatu ahal izango duela hautagaiek Hautaketa Prozesuan zehar aurkeztutako dokumentazioa eta emandako informazioa egiazkoa dela, eta automatikoki deialditik kanpo utzi ahal izango dituela informazio faltsua aurkeztu duten hautagaiak.

**Hautaketa Prozesuaren garapenarekin loturik sortzen den informazio guztia jakinarazteko, ondoko bide ofizial hauetan argitaratuko da:**

- Web orria: <https://www.dbus.eus/beste-zerbitzu-batzuk/pertsonalaren-aukeraketa/>
- Donostiako Tranbia Konpainiako iragarki taula (Fernando Sasiain 7, Donostia)

Stua.: Hautaketa Batzordea  
Donostia, 2023ko azaroak 22

**1.ERANSKINA:****Hautaketa Prozesuan onartutako eta baztertutako hautagaien behin-betiko zerrenda.**

---

**ONARTUTAKO HAUTAGAIAK**

ME23-002

ME23-004

**BAZTERTUTAKO HAUTAGAIAK**

ME23-001 (1)

ME23-003 (2)

ME23-005 (1)

- (1) Ez du betetzen Titulazioari dagokion baldintza: Lanbide Heziketako titulua Teknikari Espezialista, Goi mailako titulua edo baliokidea, honako arlo hauetako batean: "Elektrizitatea eta elektronika", "Garraioa eta Ibilgailuen mantentzea", "Instalazioa eta mantentze lanak" edo "Fabrikazio mekanikoa".
- (2) Ez du behar bezala betetzen edo egiaztatzen lanbide-esperientziaren baldintza: Mekanikari-elektrikari gisa egiaztatutako esperientzia profesionala, 3 urte ibilgailu industrialetan, autobusetan edo kamioetan, edo, 5 urte turismoetan edo, 10 urte beste garraio bide batzuetan, hala nola hegazkinetan, itsasontzietan, trenetan.